

5. atala

- Uaaaaa!!! – Egin zuen garrasi Lurrek.
- Bel... beldur... Beldurren mamua da! – Ilargiri kosta egiten zitzaion hitzak jostea – gure amari entzun izan diot honen berri.
- ZUEN BELDURRAK NIREAK DIRA! – egin zuen orro mamuak – ZUEN BELDURRAK HAUSPOTU DITUT ETA BELDUR HORIEK ELIKATUKO NAUTE ORAIN!

Gure lagunak zirkinik ere egin ezinda zeuden. Ez zekiten nola iritsi ziren Ilargiren logelatik basoaren erdira, baina Beldurren mamuaren trikimailuren bat egongo zen tarteko. Maiak pausu bat egin zuen atzera eta errama txiki bat hautsi zuen nahi gabe. Hots txiki hark trantzetik atera zuen, ordea, eta lagunei zuzendu zitzaien:

- Korri lagunok! Alde egin behar dugu! Goazeeen!!!

Neskaren oihuek amesgaizto hartatik une batez aterata korrika hasi ziren gazteak. Inoiz baino azkarrago egin zuten korrika, ez zekiten nora baina mamua atzean utzi beharra zuten.

- Segika datorkigu! – Ohartarazi zien Lurrek laguneri!
- Azkarrago! Azkarrago!!! – Maia ziztu bizian zihoan taldearen buruan.

Beldurren mamua, baina, bizkorra zen oso eta gazteek ezin zuten atzean utzi.

- EZINGO DUZUE IHES EGIN! BELDUR ZARETE ETA ZUEN BELDURREK INDARTZEN NAUTE!

Lur eta Ilargi nekatzen hasi ziren eta Maiak ere ezin zuen luze jarraitu. Gure lagunak egin zuen, ez zegoen handik onik ateratzerik, nekeak eta beldurrak gaindituta, basoko soilgune txiki batean, lurrera erori ziren abailduta.

Beldurren mamuak bere aho handia ireki zuen, hura zen azkena, begiak itxi zituzten hiru gazteek. Alabaina, bat-batean, ahots dardarti baina indartsu bat aditu zuten:

- Gaur ez duk hire goserik aseko! Hoa etorritako bidetik!

_____ Nola jarraituko du?

